

TAILERRAK EREMU FUNTZIONALETAN: GERNIKA-MARKINA (Lea-Artibai) 2016/06/08

Kokalekua: Uhagon Kulturgunea (Markina-Xemein)

Iraupena: 2 ordu eta 45 minutu

Parte hartzaileak

Izena	Udalerría	Elkarte/Erakunde/... /
Juanjo Ayerza	Markina-Xemein	-
Aitor Etxaniz	Markina-Xemein	-
Beatriz Maguregi	Markina-Xemein	-
M ^a Carmen Urdampilleta	Etxebarria	Etxebarriako Udala
Jesus Iriondo	Etxebarria	Etxebarriako Udala
Julian Arrate	Lekeitio	Lekitto bedarra
Aitor Odiaga	Markina-Xemein	Markina-Xemeingo Udala
Koldo Goitia	Lekeitio	Lekeitioko Udala
Maier Aretxabaleta	Lekeitio	-
Karmelo Jaio	Markina-Xemein	-
Juanjo Txurruka	Markina-Xemein	Markina-Xemeingo Udala
Joseba Urriaga	Markina-Xemein	-
Jon Arriola Espilla	Berriatua	Berriatuko Udala

Izena	Udalerria	Elkarte/Erakunde/... /
Isa Mandiola Zuazo	Markina-Xemein	Markina-Xemeingo Udala
Iban Etxebarria	Markina-Xemein	-
Fernando Intxausti	Lekeitio	-
Pili Robles Barainka	Lekeitio	Lekeitioiko EH Bildu
M ^a Eugenia Goitia Elordi	Lekeitio	-
Iñaki Gezuraga XXkorta	Lekeitio	Abaroa Auzolanean
Txema Iriondo Maguregi	Markina-Xemein	Arkitektoa
Iñigo Ansola Kareaga	Markina-Xemein	-
Juan Miguel Arostegi Argoitia	Gizaburuaga	Gizaburuagako Alkatea
Arkaitz Goikoetxea	Munitibar	Munitibarko Alkatea
M ^a Pilar Eizagirre Murelaga	Gizaburuaga	Gizaburuagako Udaleko Idazkaria
Ziortza Ikarán Zugazaga	Amoroto	Amorotoko Udala
Mikel Antsoategi Jaio	Aulesti	Aulestiko Alkatea
Ainhoa Odiaga	Markina-Xemein	Arkitektoa

Eusko Jaurlaritzako ordezkariak

Izena	Kargua
Fernando Uriondo Ispizua	Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren zuzendaria
Tomas Orallo Quiroga	Zuzendaritzako aholkularitza juridiko alorreko arduraduna

Asistentzia teknikoa

Izena	Enpresa
Jon Aguirre Such	Paisaje Transversal
Ana Izquierdo Lejardi	Inguru
Leire Zuazo Urkaregi	Inguru

Aurkezpena

Saioa burutuko den gelara iritsi ahala, parte hartzaileei, erregistro orria beraien datuekin betetzeko eskatzen zaie.

Fernando Uriondo Ispizuak, Lurralde Plangintzaren eta Hirigintzaren Zuzendariak, Eusko Jaurlaritzako Ordezkariek eta asistentzia teknikoa aurkezten ditu eta parte hartzaileei bertaratzea eskertu die. Horrez gain, LAGen berrikuspenak 3 urteko iraupena izango duela adierazi du eta administrazio izapidearen mugarri nagusiak (hasiera, aurrekaria, hasierako onarpena eta behin betiko onarpena) hurrengo hiru Euskal Hiria Kongresuekin, urtero azaroan ospatzen denarekin, bat eginaraziko direla azaldu du. Parte hartze prozesuak bi esparru izango ditu, parte hartze soziala eta instituzionala. Prozesu hau, 2015eko azaroan hasi zen. Ordutik, erakunde mailako parte hartzea eta on-line bitarteko gizartearena burutu dira. Aurrez aurreko gizarte-parte hartzea 2016ko martxo eta azaro bitartean garatuko da (tailerren egutegia erakutsi du), hau da, 2016ko Euskal Hiria Kongresuan aurkeztuko den LAGen berrikuspenaren aurrerapen dokumentua baino lehen.

Tailererako proposatutako lan-lerroak ondorengoak izan dira:

1. LAGak eta beraien ondorioak azaldu
2. Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu
3. Tailerraren emaitzak

LAGak eta beraien ondorioak azaldu

1997an onartutako Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko legeak Euskal Herriko lurralde antolakuntzaren marko juridikoaren oinarria ezartzen du eta lurralde antolakuntzarako bitartekoak definitzen ditu. Horrela, Lurralde Antolamendurako Gidalerroek (LAG) lurralde antolakuntzarako erreferentzia markoa ezartzen dute. Bukatzeko, LAGek lurraldean eta hiri antolakuntzan dituzten ondorioak azaldu ditu Jonek.

Landu beharreko gaiak eta lan-dinamika azaldu.

Landuko diren 5 gai nagusien azalpenak eman ditu Jonek, baita azpigaien edo paneletan hauetariko bakoitzarentzat adierazten diren azpigalderen zertzelada batzuk ere.

- Paisaia, ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea
 - o Paisaia
 - o Ingurune fisikoaren antolamendua
 - o Klima aldaketa
 - o Babestutako Naturguneak
 - o Korredore ekologikoak
 - o Azpiegitura berde integratua
- Landa-ingurunea
 - o Landa-inguruneko garapen ekonomikoa
 - o Landa-inguruneko antolamendu fisikoa
- Hirigunea
 - o Birgaitzea eta Hiri birsorkuntza
 - o Jarduera ekonomikoa eta lurraldea
 - o Hiriz hazkundera
 - o Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - o Bigarren etxebizitza eta baliabide turistikoak
 - o Mugako herriak
- Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - o Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - o Bide-mugikortasuna
 - o Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna
 - o Talde mugikortasun multimodala
 - o Eredu logistikoa
 - o Ura
 - o Energia
- Zeharkako alderdiak
 - o Genero ikuspegia, osasuna, euskara
 - o Lurraldeen arteko harremana

o Parte hartzea eta Gobernantza

Tailerrean zehar garatuko diren lan-dinamikak azaldu ditu Leirek:

- Talde-lana (75 minutu): Parte hartzaileak taldeka banatuko dira. Talde guztiek gai guztiak (Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea; Landa-ingurunea; Hirigunea; Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak; Gobernantza) landuko dituzte. Gai bakoitza azpigai ezberdinetan banatuta dago. Beraz, talde bakoitzak, lehenengo gai bat aukeratu beharko du, gero gai horretako bi azpigai eta, ondoren, proposatzen den galderari erantzuten saiatu beharko da. Horretarako bi panel ditu talde bakoitzak, landutako ideiak adieraziko dituztena (post it bat, ideia bat) eta landuko duten gaiari buruz oinarritzko dokumentuan datozen ideiak adierazten direna. Bi azpigai hauek landu ostean, hurrengo gaira pasako dira, zeinetan beste bi azpigai aukeratu eta landu beharko dituzten eta horrela hurrenez hurren.
- Plenarioa (45 minutu). Talde bakoitzak bozeramaile bat aukeratuko du eta bera arduratuko da, gainerako taldeei bere taldean landutako ideiak azaltzeaz. Lehenengo taldeak lehenengo gairako landu dituen gaiak azalduko ditu. Ondoren, bigarren taldeak bere ideiak gehituko ditu eta horrela gainerakoak, talde guztiek, gai horri dagokion beren ideiak azaldu arte. Horren ostean bigarren gaira pasako gara. Talde guztiak gai bat azaltzen lehenak izan daitezen, bigarren taldea hasiko da bigarren gaiko ideiak azaltzen, hirugarrena hirugarren gaikoak...

Tailerraren emaitzak.

Ondoren, tailerraren emaitzak azaltzen dira:

1. Paisaia, Ingurune fisikoa eta azpiegitura berdea:

1.1. Paisaia

- 1.1.1. Ondarroako herrian gertatu denak pentsatzera eramaten gaitu. Ondorioak nork ordaindu behar ditu? Ez eraiki gune arriskutsuetan.
- 1.1.2. Lea Artibain eskualde bezala denetik daukagu (mendi, itsaso, erreka...) baina pinua nagusi; orain eukalipto. Nola aldatu?
- 1.1.3. Mendi paisaia artifizialki eraldatua dago. Ustiapenera bideratua.
- 1.1.4. Zuhaitz eta landare bertokoak bultzatzea.
- 1.1.5. Administrazioak lagundu beharra eta sustatu beharra bertoko landaredia errekueratzea.
- 1.1.6. Balore paisajistikoa eta mendi esplotazioa uztartu beharra.
- 1.1.7. Ingurune fisikoa babesteko, dauzkagun azpiegiturekin (bideak) konformatu beharko ginateke.
- 1.1.8. Paisaiak talka egiten du, bai politika forestalarekin, bai politika extraktiboarekin, bai eraikuntzarekin. Politika hauetan guztietan eskua sartu, sektore hauen gehiegikeriei oztopoak jarriz eta pasaia lehenetsiz.
- 1.1.9. Lurpeko uren babesa, batez ere jarduera estraktiboetan.
- 1.1.10. Lurzoru urbanizagarri gehiegi.

- 1.1.11. Bertoko arbola autoktonoak bultzatu.
- 1.1.12. Pinua eta eukaliptoak penalizatu.
- 1.1.13. Lehentasuna paisaiak eta inguruak izan behar du eta ez eraikin eta bideak.
- 1.1.14. Gure inguru guztia monokultibora dago bideratua eta dena pribatua. Politika publikoak behar dira autoktonoa lortu eta dibertsifikatzeko.
- 1.1.15. Baserriak: paisaia ondo mantentzeko baserriak berreskuratu beharra. Itxura mantenduz, rentableak bihurtu berriztea. Baserriak ez galtzeko eta ondorioz, hauek sortzen duten pasaia mantentzeko, lurzorua legearen mugak aldatu, baserri batetik atera daitezkeen etxebizitza kopuruaren inguruan.
- 1.1.16. Ez dago suteen prebentzioko politikarik, adibidez ez dago “cortafuegosik”
- 1.2. Ingurune fisikoaren antolamendua
 - 1.2.1. Ikusita baserriak ez direla lurrak saltzeko zaleak, zelan edo halan (nekazal eskoletakoekin adostuta) animatzea ba baserriak errentan eman edo saltzera. Helburua: baserriak ez hustea.
 - 1.2.2. Baserria ez hustutzeko zero eragina.
- 1.3. Azpiegitura berde integratua
 - 1.3.1. Komeni litzake oinez-bideak berreskuratzea (zorbideak).
- 1.4. Babestutako naturguneak
 - 1.4.1. Zaindu eskualdean zeintzuk gune izan daitezkeen babes-gune izendapena behar dutenak.
- 1.5. Orokorra
 - 1.5.1. Azpiegiturak nahikoak izan daitezke, pixka bat hobetu.
 - 1.5.2. Suteen prebentzioa landu. Plana edo beste moduren batean. Gaur egun ez dago “cortafuego” bakar bat bera ere eskualdean.
 - 1.5.3. Baserria jardura ekonomiko moduan hartzea eta bultzatzea.
- 2. Landa-ingurunea
 - 2.1. Landa-ingurunearen garapen ekonomikoa
 - 2.1.1. Mugikortasuna orokorrean, landa-ingurunean hobetu behar da.
 - 2.1.2. Landa eremuak, ez husteko, saiatu behar luke jendeari (biztanleari) hiriko zerbitzuak eskaintzea. Edo, gutxienez, oreka bat aurkitu. (haurreskola, internet, denda, kutxazaina edukitzea).
 - 2.1.3. Eremu funtzionala ez da naturala lurralde ikuspuntutik, bereizitako bi eskualde argi daude, Lea-Artibai eta Busturialdea eta administratiboki ez da beti bera (zerbitzuen arabera...).
 - 2.1.4. Lea Artibain, eskualde gisa, 1. sektoreak izugarritzko garrantzia zuen, hau berreskuratu behar du eta motor ekonomiko bihurtu, ez soilik turismora bideratu.

- 2.1.5. Lur nekazal eremuak finkatu eta identifikatu, eraikuntzatik babesteko.
- 2.1.6. Lur bankua bultzatu gazteak erakartzeko aktibitate ekonomiko horretara.
- 2.1.7. Landa eremuak ez galtzeko ahalegina egin beharra, ez dagiguzan bete etxez edo...
- 2.1.8. Herrietan landa eremu onenak urbanizatzetik libratu behar dira, lur onenen erreserba bat egin beharko litzateke, lur hauek nekazaritzarako gordetzeko.
- 2.1.9. Bertoko produktuen kontsumoa bultzatzeko politika publikoak bultzatu: ikastetxe, jantoki...
- 2.1.10. Nekazaritza ekologikoa bultzatu eta lagungarri gisa, Agroturismoa buelta bat eman, landa-eremuaren jarduera ekonomikoari lotuta, hau bultzatzeko.
- 2.1.11. Lan-kooperatiba antzekoak martxan jarri.
- 2.1.12. Arrantzale eta nekazariak, produktiboki onak dira, baina distribuzioan dago arazoa, balio erantsia hor galtzen da. Horregatik hau beraien eskuetan jarri behar da, distribuzioa kontrolpean izan, azken prezioa mugatua izan dadin.
- 2.1.13. Bertoko produktu eta sasoikoak sustatu. "Km 0".
- 2.1.14. Baserria "reinbentatu" egin behar da goitik behera, XXI. mendera egokitzeko: Lur bankua, baserriar berriak (baserri osoa ez hartu beregain eta kalean bizi eta lurra landu...), distribuzio zirkuituak, etab.
- 2.1.15. Industria bultzatzea ere garrantzitsua da, ez soilik lehen sektorea. Baina honetarako azpiegitura egokiak behar dira, politika global bat egin behar da, gune hau erakargarria egiteko.
- 2.1.16. Iturri berriztagarriak erabilita energia sortzeko guneak bultzatu

2.2. Orokorra

- 2.2.1. Biztanleriaren jaitsiera arazo larriena.

3. Hirigunea.

3.1. Birgaitzea eta birsorkuntza

- 3.1.1. Espazio publikoak errespetatu.
- 3.1.2. Oinezko + bizikleta bideak bultzatu.
- 3.1.3. Hazkunde naturalaren arabera eraiki baina beti ere etxe hutsak erabiliz eta etxe zaharrak birgaituz, irisgarritasun irizpideak kontutan izanda. Alde zaharretan nagusiek etxeetatik ateratzeko arazoak dituzte eta hau kontutan izan behar da birgaitzean. Leku batzuetan nagusiak etxe tutelatuetera eramaten dituzte eta irisgarritasun oztopo hauek dituzten etxeetan gazteak sartu..
- 3.1.4. Kuantifikazioa: balore minimoak ezabatu, herriak ez derrigortu etxeak eraikitza eta maximoak herrian erabaki.
- 3.1.5. Etxebizitza kalkuluan gutxiengoa ez markatzeak erraztuko luke benetako diagnosi baten arabera planeatzea.

- 3.1.6. Birgaitzeari garrantzia eta ez horrenbeste berria eraikitzeari. Landa eremuan ere berdin jokatu (baserriak galtzen).
- 3.1.7. Etxebizitzan birgaitze politikak aplikatu eta hirigintza politika aktiboak etxebizitza eredu ezberdinak aplikatzeko.
- 3.2. Metropolialdeak eta transformazio ardatzak
 - 3.2.1. Herri hauek turismorako etxebizitzak eraikitzea ez lirateke behartu beharko, batez ere dagoen etxebizitza huts kopurura kontutan izanda. Gainera, herri turistikoetan eskatzen zaigu 7000 herritarrentzako zerbitzuak 35000 artean banatzea. Ezinezkoa..
- 3.3. Mugako herriak
 - 3.3.1. Herrietan planeamendua egiteko orduan mugetako herriak eta eskualdea kontuan hartu. Adibidea, orain 30 urte 5 herri erabaki zuten lur-industrialak Gizaburuan egitea.
 - 3.3.2. Uste dugu baietz, kontuan hartu behar direla inguruko herriak planifikatzerakoan.
 - 3.3.3. Alboko herriekin planeatzea, ezinbestekoa.
 - 3.3.4. Alboko herriekin HAPOak adostu, zerbitzuak denon artean eman baitaitezke.
- 3.4. Hiri inguruneke arazo larrienak
 - 3.4.1. Kotxearen menpekotasuna.
 - 3.4.2. Hiri urbanoa duten herriek (Ondarru, Markina, Lekeitio) populazio galtzea ezagutu dute, urbanizatzeko lurrik ez dutelako eta etxebizitzaren prezioa oso garestia delako. Adibidez, Etxebarriak eta Markinak prezio bardietsuan etxebizitzaren prezioak izanda, Etxebarriakoek garestiagi irteten dira dentsitateagatik.
- 3.5. Orokorrean
 - 3.5.1. Etxe hutsen inguruan zerga politika jarri. Etxebizitzak erosteko kultura dago, propietatean izatekoa, baina beharrezkoa alokairua bultzatu eta espekulazioa sahiestuko duten politikak garatzea.
4. Mugikortasun jasangarria eta azpiegiturak
 - 4.1. Oinezkoen eta bizikleten mugikortasuna
 - 4.1.1. Errepideak konpontzen direnean, diru gehiago gastatuz, bizikleta eta oinezkoentzako espazioak txertatzen bideetan.
 - 4.1.2. Errepideak berriztean direnean txirrindulari, oinezko e.a. diseinatu.
 - 4.1.3. Herri txikiak bus zerbitzuak hobetu.
 - 4.1.4. Bide berrietan edo berritzen direnean, 1,5 m arzenak egitea behartu.
 - 4.1.5. Eskualde osoa saretu beharra bizikletaz eta oinez.

4.2. Portu, trenbide eta aireportuen mugikortasuna

4.2.1. Azpiegitura handi guztiak triplikatuak daude (herrialde bakoitzak berea eduki nahi du): aireportuak...

4.3. Eredu logistikoa

4.3.1. Plazakolan errotonda egin, horrela Ondarroarako autobusak bertan gelditu ahal izango du eta Lekeitio eta Ondarroaren arteko garraio publikoa hobetu daiteke.

4.3.2. Garraio publikoa Bilbora begira diseinatuta dago, baina herrien arteko loturara diseinatu beharko litzateke.

4.3.3. Markinan autobus geltokia polikiroldegi inguruan jarri, herritik atera, herri barneko trafikoa eta bidaiaren denbora murrizten dira.

4.3.4. Garraio publikoa: orokorrean txarto dago. Gaueko zerbitzurik ez dago; Lea eta Artibai gaizki konektatuak daude, bi arroen artean ez dago konexiorik eta are okerragoa da eremu funtzionaleko bi eskualdeen arteko lotura, ezinezkoa bi eskualdeen artean garraio publikoan mugitzea.

4.3.5. Erkidegoko mapa berria egin beharko litzateke garraio publikoari dagokionez, herritarrek EAEko puntu batetik beste batera garraio publikoaren bitartez nola mugi daitezzen jakin dezaten.

4.3.6. Lea-Artibairen lotura Gipuzkoarekin oso garrantzitsua da industriarako.

4.3.7. Garraio publikoaren planteamendua hiriburuari begiratzetik aparte, eskualdeko ikuspegitik antolatu beharra, ez baitaukagu nola heldu eskualde bateko herri batetik bestera.

4.4. Bide-mugikortasuna

4.4.1. Errepideak oso egoera txarrean daude orokorrean: Markina-Ondarroa, Lekeitio-Gernika, BI 3447, BI 3448,...

4.4.2. Saihesbideen beharra: Markinatik Etxebarrira, Berriatua

4.4.3. Makroinfrastrukturetan gastatu beharrean eskualdeetako beharrianetara bideratu.

4.4.4. Ez dugu behar makroinfrastrukturarik, baina bai dagoena hobetzea eta mantentzea baldintza egokietan.

4.5. Ura

4.5.1. Uraren kontsumoa arduratsuen aldeko kanpainak egin, gaur egunekoak baino gogorragoak. Denek jakin beharko lukete ur edangarria iturrira eramateak suposatzen duen kostua, herritarrek baloratu eta botiletakoa ez erosteko.

5. Zeharkako alderdiak: Generoa, osasuna, euskara, lurraldeen arteko harremana eta parte hartzea

5.1. Parte hartzea eta Gobernantza

5.1.1. Edozein proiektu idazten hasi aurretik dagokien herriekin kontrastatu (udalak, herritarrek...). Goitik behera egin beharrean, behetik gora egin proiektuak.

5.1.2. Parte hartze prozesu honetan egindako aportazioak zelan jasoko dira? Zein pisu edukiko dute? Zein eraginkortasun edo erabakiortasun?

5.1.3. Eraginkorrak izango dira?

5.2. Euskara

5.2.1. DOTak euskararen presentzia/ardura areagotu behar dute eta Eremu Funtzionaletan ziurtatu eta hobetu egoera.

5.2.2. Lurralde Plangintzak herriaren nortasunean eragin zuzena dauka eta honen galera mugatu behar da. Adibidez, urbanizazio berrien eraikuntzak euskararen daukan eragina kontutan izan beharko litzateke, batez ere erdaldun asko badatoz.

5.2.3. UEMAREN erreminta, ELE (euskararen eragin linguistikoa) kontutan izan.

6. Gai orokorrak

6.1. Bizkaia mailan zaborren politika aldatu behar da. Oinarrian birziklatzearen alde egin behar da, hondakina ondo bereiziz. Ondorioz, etxeetan ondo birziklatzen bada, alperrik sortzen diren hondakin guztiez jabetzen gara eta honen inguruan neurriak hartzen hasi. Horrez gain, gehiegizko ontzi murrizteko neurriak/politikak aplikatu behar dira.

6.2. Auzo-lana bultzatu behar da, izan ere, herriek gaur egun eta zurrena etorkizunean izango dituzten baliabideekin ez baikara beharrezkoak eta azpiegituren mantentze lanei erantzuteko gai izango. Beharrezkoa hau bultzatzea.